

Norvegiako

FIORDOAK



NORVEGIAN AURKITU DITZAKEGU naturaren formazio liluragarrienetako batzuk: fiordoak.


Glaziarren ondorioz milaka urtean zehar arrokan sortu diren korridore sakonak dira fiordoak. Beren ibilbide geldo baina etengabeen, Norvegiako glaziarrek harriak eta lurra higatuz joan ziren; hala, ibilbide horretan sortuz joan ziren haranak gero eta zabalago eta sakonago bihurtu zituzten. Kalkulatzen da milurteko bakoitzean metro-erdi bat arroka higatzen duela glaziarrek. Urte askoren buruan, glaziarrek itsasora iritsi ziren, eta, han, urtzen hasi. Gero, glaziarrek sortutako haranetan Ipar itsasoa sartu eta urez bete zituen. Horrela jaio ziren fiordoak.

Fiordoan rankingean, Groenlandia dago lehenengo postuan, baina Norvegiakoak dira ezagunenak. Hor dago munduko bigarren fiordo luzeena, Sognefjorden famatua; 204 km luze da. Sognefjorden fiordoa bost besotan banatzen da, eta beso horiek, beste hainbatetan. Haietako bi, Geirangerfjord eta Nordfjord, UNESCOREN gizateriaren ondare naturalaren zerrendan daude.



Nordfjord Norvegiako barnealdeko mendietaraino sartzen da eta, han, Jostedalsbreen glaziarraren ur gezarekin nahasten da. Jostedalsbreen Europako glaziar luzeena da, 100 km ditu.

Uraren mailatik zein airetik, fiordoan pareta ikaragarrien perspektiba txundigarria da. Pareta batzuek 1.800 metroko altuera dute. ●



JEFF SCHMALTZ/MODIS RAPID RESPONSE TEAM/NASA, GSFC



© ISTOCKPHOTO.COM/RUSM



PETER JOHN ACKLAM/© ESKUBIDE BATZUK ERRESERBATUTA ⓘ ⓘ



TERJE RAKKE/NORDIC LIFE/WWW.VISITNORWAY.COM